

# JARDUNBIDE EGOKIEN GIDA



INSTALAZIOEN ERABILERA  
ETA NABIGAZIOA

# GURE KIROL-PORTUAN, **ERABAT SEGURU GOZATUKO DUGU!**

**Kirol-portua nabigatzeko, bizitzeko, elkartzeko eta trukeak egiteko toki bat da. Batez ere, paseatzeko, gozatzeko eta erlaxatzeko toki bat da.**

**PORTUAZ GOZATZEN JARRAITU NAHI BADUGU,  
KONPROMISOA HARTU BEHAR DUGU!**

Egun bizi dugun osasun-krisialdia dela eta, adi ibili behar dugu.

**BABES ZAITEZ,  
BABES GAITZAZU!**



# ERRESPETATU OSASUN-NEURRI OROKORRAK

**Nola  
kutsatzen da  
koronabirusa?**



Jariakinak  
proiektatuz  
gero



Minutu batzuk  
aurrez aurre  
egonez gero



Elkar ukituz  
gero

**Nola babes  
zaitezke, eta  
nola babes  
ditzakezu  
bestek?**



Garbitu eskuak  
sarritan



Egon gutxi  
gorabehera  
2 m-ra



Erabili maskara  
segurtasun-  
distantzia gorde  
ezin bada



Doministiku edo  
eztul egitean, estali  
ahoa eta sudurra  
ukondoarekin edo  
zapi batekin



Erabili botatzeko  
mukizapiak eta  
bota itzazu ondo  
ixten den poltsa edo  
edukiontzi batera



Agurtu jendea  
eskua edo musu  
eman gabe



Ez egon taldean

# ERRESPETATU OSASUN-NEURRI BEREZIAK

Bisitatzan dituzun toki guztietan, arau orokorrak eta osasun-arau espezifikoak beteko dira.

Horrela, zure osasuna eta besteena babestuko duzu.

## PORTUKO ITSASONTZI ETA INSTALAZIOETARA IRISTEKO

- **Portuan barrena bazabiltza**  
(aparkalekuak, kaiak, pantalanak, espazioak eta bide publikoak...)
- **Portuko kapitaintzaren bulegora, toki publiko edo pribatu batera, edo erabilera kolektiboko espazio itxietara joaten bazara**
- **Portuko instalazio eta zerbitzuak erabiltzen badituzu**





- Gorde segurtasun-distantzia (2 m) eta saihestu taldean egotea.
- Joan zuzenean eta modu ordenatuan itsasontzira edo helmugara.
- Ez ukitu inguruko objektuak.
- Beste norbaitek erabili duen objekturen bat ukitzen edo erabiltzen baduzu, garbitu eskuak arretaz hura erabili aurretik eta ondoren.
- Errespetatu desinfekzio-lanak.
- Errespetatu unean-unean ezarrita dauden segurtasun-arau orokor eta espezifikoak.

### **Bereziki:**

- Jantzi maskara pantalanetara joateko eta haietatik ibiltzeko **eskailera eta arrapaletan eta pantalanetan** ezin da gorde ezarritako segurtasun-distantzia; beraz, **nahitaezkoa** da **maskara** eramatea eta bakarrik ez bazaude jantzea).
- Ez gelditu pantalan, eskailera eta arrapaletan.
- Saihestu jende-pilaketak eta, behar izanez gero, itxaron ilaran lasai.

# ITSASONTZIETAN EGOTEA ETA NABIGATZEA

## ► Portuan edo itsasoan erabiltzen

**baduzu itsasontzia** (itsasontzian geratzen bazara, nabigatzera bazoaz, edo profesional nautiko bati edo itsasontziko zerbitzu bati deitzen badiozu)

- Gorde distantzia, errespetatu itsasontzi barruko gehieneko jende kopurua eta babes zaitzete itsasontzian egongo zareten guztiak.
- Ez utzi beste gauzarik pantalanean edo finger-ean.
- Errespetatu desinfekzio-lanak.
- Izapideren bat egin edo norbaitekin harremanetan jarri behar baduzu, erabili telefonoa, posta elektronikoa edo materialki edo fisikoki inor ukitzea saihesten duen beste bideren bat.
- Jarduera zehatz bat egin nahi baduzu, eskatu hitzordua telefonoz.
- Amarradurak lotzeko eta askatzeko, erabili behar duzun denbora soil-soilik.
- Beste norbaitek erabili duen objekturen bat erabiltzen baduzu, garbitu eskuak arretaz hura erabili aurretik eta ondoren.
- Egon itsasontzian, ez pantalanean.
- Errespetatu osasun-arau orokorrak eta kasuan kasu ezartzen diren jarraibide espezifikoak.



# EREMU TEKNIKOA EDO ONTZITEGIA



## ➤ Eremu teknikoak eta itsasontziekin erlazionatutako zerbitzuak erabiliko badituzu (garabiak, orga jasotzaileak, euskarriak, etab.)

- Kontuan izan eremu teknikoak lanerako direla, partekatu egiten direla eta segurtasun-neurri espezifikoak dituztela.
- Jarri harremanetan portuko kapitaintzaren bulegoarekin aurretik, kudeatu zerbitzu-agindua eta eskuratu baimena telefonoz edo posta elektronikoz.
- Prestatu konponketa- edo mantentze-lanak behar beste lehenago (tresnak, erremintak, arropa, oinetakoak eta bestelako materialak...).
- Lan-eremuan sartzen zaren bakoitzean, jakinarazi iritsi zarela eta azaldu zehatz-mehatz zer behar duzun.
- Ez ibili sartu-atera ontzitegian. Iritsitakoan, geratu lan-eremu mugatuaren barruan lanean.
- Prestatu itsasontzia ontzitegira joateko.
- Kendu flotazio-marratik behera dauden tresnak, prestatu amarradurak eta babesak ontzitegira iritsi aurretik, eta adierazi zingilak eta euskarriak non dauden langileengandik 2 m-ko distantzia gordeta.
- Ontzitegian pertsona bakarra egon ahal izango da itsasontziko, aurretik portuaren baimena jaso duten itsasketako mantentze-lanen enpresetako langileen kasuan izan ezik (jarduera profesionalen koordinazioa).
- Entzun arretaz eta errespetatu ematen dizkizuten jarraibideak (distantziak, segurtasun-langak edo -mugak, babes-ekipamenduak).

# PORTUKO KAPITANTZAREN BULEGOA ZURE ZERBITZURA

Arauei buruzko informazioa nahi baduzu, zerbitzu bat erabili, edo haren inguruko kontsulta bat egin, jarri harremanetan portuko kapitaintzaren bulegoarekin ezarri diren segurtasun- eta higiene-neurriei jarraikiz eta, ahal dela, izapideak telefonoz edo posta elektronikoz eginez.



## **GARRANTZITSUA**

**JARDUNBIDE EGOKIEN GIDA OROKOR BAT DA HAU. HORREK EZ DU ESAN NAHI BERTAN JASOTA DAUDEN JARDUERA GUZTIAK GAUZA DAITEZKEENIK AURRERANTZEAN.**

**EGON ADI INFORMAZIOARI; PIXKANAKA JAKINARAZIKO DIZUEGU UNE BAKOITZEAN EDO NORMALTASUN BERRIRA IGAROTZEKO FASE BAKOITZEAN ZER JARDUERA EGIN AHAL IZANGO DIREN ETA ZER ZERBITZU EGONGO DIREN ERABILGARRI, BAITA ORDUTEGIA ETA BESTE ZEHAZTAPEN JAKIN BATZUK ERE.**



# EUSKADIKO KIROL PORTUEN JOKABIDE ONARI BURUZKO GUTUNA COVID-19ak OSASUNERAKO DITUEN ARRISKUEI AURRE EGITEKO

Portuko zerbitzuak berriz ere martxan jar daitezten eta dagozkion agintariek eta segurtasun-indarrek segurtasun-neurriak betetzen dituen jarduera-sektoretzat har gaitzaten, EKP-k konpromiso hauek hartu ditu bere gain:

- 1.** COVID-19ari aurre egiteko agintari publikoek eman dituzten arau, zuzentarau eta gomendioak aplikatzen direla ziurtatzea.
- 2.** Portu-agente, zerbitzu-hornitzaile, profesional nautiko, elkartutako eragile, nabigatzaile eta bisitariak babes-eta segurtasun-neurriak errespetatzera behartzea edo bultzatzea, kirol-portu osoan, baina, batez ere, pantalanetan eta eremu teknikoetan.
- 3.** Harrera-guneetan besteekiko distantzia gordetzea ahalbidetzen duten babes-ekipamenduak instalatzea: pantaila gardenak, maskarak, doako produktu desinfektatzaileak, egonleketan bezeroei elkarrekiko segurtasun-distantzia gordetzea ahalbidetzen dieten zoruko markak, seinaleak edo argibideak.
- 4.** Eremu komunak egunero sakonago garbitzea, aireztatzea eta desinfektatzea (komunak, portuko bulegoak, zerbitzugunea, garbigunea...), eta lan horiek osasun-agintarien eskakizun eta gomendioetara egokitzea.
- 5.** Beste ordainbide batzuk eskaintzea, hala nola transferentzia edo banku-txartela (elkar ukitu gabe); ordainketa-terminalak sistematikoki desinfektatzea.
- 6.** Mantentze- eta desinfekzio-lanak egin bitartean osasun-instalazioetara nor sartzen den kontrolatzea, baita haiek itxita daudela ziurtatzea ere.

- 7.** Kirol-portuan COVID-19a saihesteko hartu diren neurri guztiak argi eta garbi ezagutarazten direla bermatzea.
- 8.** Langileak Portuaren Dokumentu Bakarrean jasota dauden kudeaketa-protokoloak aplikatzeko trebatzea, eta, ondoren, protokolo horiek ezartzen eta betetzen direla bermatzea, batez ere norbaitek COVID-19a duelako susmoa izanez gero.
- 9.** Sukarra edo COVID-19aren beste sintomaren bat duten langileak berrogeialdia egitera behartzea, badaezpada.
- 10.** Gure jarduera enpresaren prebentzioko eta lan-segurtasuneko aholkulariek diotenarekin etengabe koordinatzea.